

du erantzuten. Eragozpenik ote litzaken, galdetzen du Urkijo jaunak *Patronimia*'ko lana bere gain artu duen batzordeak, *Toponimia*'koa ere artzea? Ezetz erantzun dio Euskaltzaindiak.

5. Azkue jaunak esaten digu, on litzakela Etxegarai jaunari galdetzea, Altube'ren bitartez, emendik bi ilabeterako gertuko ote litzaken Euskaltzaindian bere sañera egiteko. Onetsi du Euskaltzaindiak galdebide auxe.

6. Azkue jaun berak irakuri digu, bere lan eder bat *Repartición semántica* deritzana.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi ta, otoitez amaitu da batzaraldia.

Donostia 'n, Gipuzkoa 'ko Aldundi-Jauregian, 1925 'ko Otsailaren 27 'an.

Aurreko agirian aipatzen diran euskaltzain berak datoz.

1. Urkijo jaunak antziñako idazki batzuek aztertuta, *Kampomanes* zeritzan gizon ospetsuak, euskerraren alde zer egin zuenen beñi eman digu. Urkijo'ren lan ortan dakusgu zenbat arduratzen zan *Sociedad de Amigos del País* euskera maitea geyen-geyenen ezagufarazten. Oroitu ditu Urkijo'k : Aipitarte'ren lanaz euskal-iztegia eta Egino jaunarenak atsofitz ta esakunetan. Oso gogo aundiz entzun dio Urkijo jaunari Euskaltzaindiak.

2. Altube jaunak irakuri digu, bere lan eder bat, Azkue'ren *Morfología*-ri oartxo batzuek ezafirik.

3. Aita Intza'k ere irakurri dizkigu Napañoa-aldean idoro dituen euskal-itz berriak.

4. Azkue jaunak erderazko *modismo*-i dagokion euskal-esakerak deritzan lana irakurri du.

5. Kanpion jaunak esan digu: Datoñen Agofil'ean Axular zanaren jai-oroigarri batzuek Sara'n ospatzera dijoazela : On litzakela Euskaltzaindia jai oyetan izatea. Jai-egileak ez digute oraindik ezertxo ere adierazi, ta obe da noski gerorako ustea onen erabakia.

Ta beste gairik izan ez-ta, otoitzez amaitu da batzaraldia.

Bilbo'n Euskaltzaindiaren etxean, 1925'ko Epai- la'ren 26'an.

Azkue jauna maipuru dutela euskaltzain abek bildu dira : Urkijo, Landeñetxe, Olabide, Altube, Lakonbe ta Intzagarai. Urgazletatik Belaustegigoitia jauna. Maipuruak otoitza egin du.

1. Olabide jaunak dio : Bilbo'ko egunari *Euzkadi*'n galdetu duela, zergatik azaltzen ez diran, egunari onen orialdetan, Ebanjelioaren zatitxoak, ta erantzun diotela euskerazko zatitxo oiek ez dauzkatelako.

Euzkadi'k artu lezazkike, oraintxe agertu dan *Argi-donea* deitzen dan eliz-liburutik.

2. Maipuru jaunak irakurri du Agirñ Domingo euskaltzain maite zanaren anaiaren eskutitz bat, aren euskal-lanak, argitara bide, zertan ote dauden galde-
turik. Etxegarai jaunaren beste eskutitz bat ere irakurri da, auxe gai duelarik.